



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

bizitegi-premiei erantzuteko. Hala ere, etxebizitza baten esleipena gainditzen duten beste gai horien kudeaketa ez dago behar bezala finkatuta Biziguneren egungo diseinuan.

- Horregatik, 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren testuinguruan egin behar den funtsezko zereginetako bat gizarte-laguntzaren prozesuen kudeaketa izango da. Horretarako, guztiz beharrezkoa dirudi egoera horietan eskumena duten agenteekin lankidetzaz hobetzea (batez ere Udaletako Gizarte Ongizate Sailekin).
- Bestalde, Bizigunek pertsona horiei auzo berrian integratzeko prozesuan lagunduko dien lan-talde bat edukitzea komeni ote den aztertuko da. Zehazkiago, eta kontuan izanik Bizigunek bere alokairuko parkearen kudeaketa Alokabidera bideratuko duela, Alokabide arduratuko da gizarte-arretako gaiez kontratua sinatzen den unetik aurrera, eta funtzio horiek bere egituraren sartuko ditu.

Beste agente batzuekin lankidetzaz handitzea, gizarteratzeko arazoak dituzten kolektiboaren arreta zabaltzeko

- Adierazi den bezala, Bizigunek mekanismo berriak ezarriko ditu gizarte-laguntzako prozesuetan eskumena, ezagutza espezifiko eta esperientzia duten agenteekin lankidetzaz indartzeko. Bereziki Udalekin dagoen koordinazioa hobetu nahi da, egoera horiei arreta eskaintzeko sailak dituztelako beren egituretan, baina baita egoera jakinetan laguntza puntuala baina handia eman dezaketenen beste agente batzuekin ere (Cáritas, Gurutze Gorria, eta abar).

HURBILEKO ARRETA, ETA PERTSONALIZATUA, ETXEBIZITZA ESKATZAILE ETA ERABILTZAILEEI

7. ARDATZA KALITATEZKO ARRETA ESKAINTZEA ETXEBIDE ETXEBIZITZA EUSKAL ZERBITZUKO ERABILTZAILEEI

7.1 HELBURU NAGUSIAK

- Etxebizitzarekin erlazionaturako kontsulta do kudeaketaren bat egiten duten pertsonen beharrezko informazioa eta arreta egokia eskaintzea, erabiltzaileak Administrazio Publikoek etxebizitza babestuen alorrean egiten duten eskaintza ulertzeko nolabaiteko arazoak dituztenean.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Lehendik Etxebide Etxebizitza Euskal Zerbitzuan erregistratuta zeuden etxebizitza babestuaren eskatzaileekin informazio- eta komunikazio-prozedurak hobetzea.
- Udalen zerbitzuak hobetzea eskariaren eta esleipenaren kudeaketaren alorrean.

7.2 JARDUN ILDOAK

Etxebizitza babestuaren eskatzaileei arreta pertsonalizatzea erregistratzeko prozesuan

- Etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa erregistratu nahi duten pertsonak askotan ez dituzte ezagutzen etxebizitza babestuen erabilera eta gozamenari buruzko baldintzak, hala eskubideei nola betebeharrei dagokienez. Ez ezagutze hori batez ere alokairu babestuko etxebizitzetara loturik dago, hala sustapen berrietan nola Bizigune Programan, non sartzeko zenbait baldintzez gain, urtero bete behar diren erabilera eta gozamenari buruzko baldintzak dauden (diru-sarreraren gehienezko muga, errenta-mailen eguneratzea diru-sarreraren mailaren arabera, eta abar).
- Gai horrek garrantzi handiagoa hartzen du 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean zehar gertatuko den etxebizitza babestuko tipologiaren dibertsifikazioa kontuan hartuz gero, eskatzaileak erregistratzeko aukera handiagoa eta irudi berriak izango dituelako eta horiei buruzko informazio gutxi duelako.
- Horregatik, egungo erregistratze-prozesua arreta pertsonalizatuko sistema batekin osatu nahi da, eskatzaileek erregistratzeko prozesuan behar duten informazio guztia dutela bermatzeko, batez ere eskatzaileak alokairuko etxebizitzetara edo/eta etxebizitza erabiliei buruzko interesa erakusten duenean (etxebizitza tanteatuak, Bizigune Programako etxebizitzak, eta abar).
- Erregistratzeko eredu berri horrek, horretarako baliabideak asko handitzea eskatzen du. Dena den, erregistratzeko prozesua hobetuta espero da esleipendunen ukoen maila txikitzea, gaur egun oztopo handia baita etxebizitza babestuaren eskaria eta eskaintza bateratzeko sistemaren funtzionamenduan, eta baliabide publikoen kontsumo handia eskatzen du gainera. Era berean, etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistratze-prozesuan beste agente batzuek izan dezaketen papera aztertuko da.

Herritarren arretarako zerbitzuak zabaltzea, etxebizitza libreari buruzko kontsultak ere barne hartuz

- Eusko Jaurlaritzak lehengo Hiri Jabetzako Ganbaren zenbait eskumen bere gain hartu ditu, eta beraz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere funtzio



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

berriak egoki garatzeko egin behar dituen zerbitzuak definitu behar dira (bitartekaritza- eta adiskidetze-zerbitzuak, fidantzen eta errentamendubisatuen erregulazioa, eta abar).

- Funtzio horietako batzuk Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Kontsumo Zuzendaritzak eta kontsumitzaile-elkarteek garatzen dituzten jarduerekin hurbiltasuna dutenez gero, gai horien koordinazio egokia bermatzen duten neurriak bideratuko dira.
- Arau-estaldurari dagokionez, etorkizuneko etxebizitzari buruzko legeak, etxebizitzaren erabiltzaileak, eroslea nahiz maizterra izan, izan behar duen beharrezko informazioa eta bermeari buruzko zenbait elementu bilduko ditu, eta higiezinaren merkatuan esku hartzen duten agenteen papera arautuko du.

Udalek eta herritarrek Etxebideko erregistroko informaziorako duten sarbidea hobetzea

- **3. ARDATZEAN** udalak Eusko Jaurlaritzaren aliatu estrategiko gisa definitzeari dagokionez ezarritakoarekin bat etorritik, komenigarria dirudi Udalek Etxebideko erregistroen kudeaketan duten integrazio-maila handitzea atal desberdinetan (informazioaren kontsulta, eskatzaileen zerrendako lortzea, eta abar). Teknologia berrien erabilera (Internet, Extranet, WAN, eta abar) horretarako aukera paregabea izan daiteke.
- Informazio hori lortzeko prozeduretan hobekuntza operatiboak lortzeaz gain, ekimen horren bitartez Udalek Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzako politika publikoetan parte-hartze maila handiagoa izatea lortu nahi da, eta aldi berean Etxebideren erregistroa kontsolidatzen da EAEko etxebizitza-eskatzaileen erreferentziazko zerrenda gisa.
- Bestalde, interesgarria dirudi erregistratutako pertsonen beren espedienteari buruz duten informazioa zabaltzea, edozein unetan beren eskariaren xehetasun guztiak ezagutzeko (lor ditzakeen etxebizitza-tipologiak, eskualde-egiturak, eta abar). Horretarako, Etxebideren web orria indartuko da, herritarrekin komunikatzeko tresna nagusi gisa.

Etxebide Etxebizitza Euskal Zerbitzuaren antolaketa- eta kudeaketa-ereduaren balizko berrikuspena aztertzea

- Etxebide Etxebizitza Euskal Zerbitzua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jarduna oinarritzen den zutabeetako bat da. Etxebidek oinarritzko zeregina bete du EAEko etxebizitza-politika publikoetan izandako aurrerapenetan, eta gainera erabiltzaileek zerbitzu hori modu positiboan baloratzen dute.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Hala ere, egungo egoerak eskatzen du Etxebideren egungo kudeaketa-ereduari buruzko azterketa egitea. Alde batetik, Etxebidek jarduera-maila handia du bere funtzio guztietan (kontsulten arreta, espedienteen kudeaketa, esleipen-prozedurak, etxebizitza babestuaren baldintzak betetzen direla egiaztatzea, hirugarrenei informazioa ematea, eta abar), egokiak eta nahikoak ez diren giza baliabide eta baliabide materialekin.
- bestalde, kontuan izan behar da Etxebizitza Bideratzeko Plan honek erronka berriak ezartzen dituela Etxebideren kudeaketan (etxebizitza babestuko tipologia berrietarako eskatzaileen erregistroa, Jabetza Ganbararen eskumenak bereganatzea, eta abar), eta aldi berean metodoak eta jarduteko prozedurak hobetzeko aldaketak sartu dira (arretaren pertsonalizazioa, prozedurak arintzea, lankidetzatza handiagoa Udalekin, eta abar).
- Beraz, aldaketa horien garrantzia dela medio, bidezkoa dirudi Etxebideren (eta Etxebizitza Ordezkaritzen) kudeaketa-eredua, antolaketa-egitura eta dituen giza baliabideak eta baliabide materialak berrikustea, zereginak hobeto betetzeko eredu alternatibo bat proposatuz.

Etxebizitza babestua esleitzeko sistema malgutzea eta kupoen eredua berrikustea

- 2006-2009ko Planak etxebizitza babestuaren tipologia dibertsifikatzea dakar, eskatzaileen premia-egoeretara hobeto egokitu ahal izateko. Era berean, arauen malgutasun handiagoa dago etxebizitza babestuan diseinu berriak sartzeko, ingurune bakoitzaren egoeretara hobeto moldatuz.
- Jardun-ildo horretan bertan, esleipen-sistema malguagoa diseinatze proposatzen da, esleipen-prozedura sustapen bakoitzaren baldintza espezifikoetara egokitzeko (etxebizitza lortzeko erregimenaren arabera, etxebizitzaren tipologiaren arabera, eta abar), eta horrela kasu bakoitzean sustapen-mota desberdinen eskatzaileen ezaugarrietara egokituko den prozedura erabili ahal izango da.
- Aurrekoari loturik, ikusi da egungo kupoen eredua berrikusi egin behar dela, kupo berriak sortuz (beharbada sustapen jakin batzuetan bakarrik), eta/edo kupoen araberako zozketa-sistema aurretiazko baremo baten aplikazioarekin osatzea (bizikidetzatza-unitatearen tamainaren arabera, adibidez). Azken finean, aldaketa horiekin arreta handiagoa eskaini nahi zaie pertsonen eta familien ezaugarri jakin batzuei, etxebizitza-premiaren mailan eta behar den etxebizitzaren motan eragina baitute.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Prozedura arinagoak ezartzea alokairuko etxebizitza babestuen esleitzeko

- Ikusi da beharrezkoa dela prozedura berriak ezartzea sustapenen zozketaren eta etxebizitzaren entregaren arteko epea laburtzeko, esleipendunak etxebizitza lehenago eskuratu ahal izan dezan. Gai horrek batez ere alokairuko etxebizitza babestuko sustapenetan du eragina, goatzeko aldia laburragoa delako eta, beraz, itxaro-denborak eragin handiagoa duelako.
- Ildo berean, etxebizitza baten esleipendunak diren pertsonen ukoak kudeatzeko prozedura arinagoa ezarri behar da (kasuistika horrek batez ere alokairuko etxebizitza babestuko sustapenak ukitzen ditu), prozedura horiek epeak asko luzatzen dituztelako. Horri loturik, aurreikusi da erregistratzeko prozeduran arreta pertsonalizatzeari buruz adierazi diren neurriek eskaria hobeto erakartzen eta ukoen kopurua murrizten lagunduko dutela, itzaroteko epeak murriztuz.
- Bestalde, eskatzaileek benetan interesik ez duten programa babestuetan izena ez emateko, eta benetako eskariei arreta hobea eta bizkorragoa eskaintzeko, Etxebidek egindako esleipenei egindako ukoen eraginak aldatzea aurreikusi da. Gaur egun lehen ukoak ez du inolako eraginik sortzen, eta bigarrenak Etxebiden baja ematen du automatikoki, eta bi urtetan ezin erregistratzea. Sistema berriak ezarriko du lehen ukoak ekarriko duela ukoa egin deneko programan baja ematea (BOE azalera-eskubidean, Alokairuko Etxebizitza Soziala, Bizigune, eta abar), bigarren ukoa lehen bezala geratuz.